

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

8

EBAZPENA, 2015eko abenduaren 16koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2015eko irailaren 30eko Aginduko diru-laguntzak esleitzeko ebazpena argitara emateko dena. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren agindu horren bitartez, publikoak ez diren artxiboak antolatzeko, hedatzeko eta digitalizatzeko diru-laguntzak banatzeko modua arautu zen.

Diru-laguntza publikoak emateko orduan publikotasun-printzipioa bete behar denez, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen Ebazpena, onuradunen zerrenda, finantzatutako proiektuak eta emandako zenbatekoak adierazten dituenak, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, interesdunei banan-banan jakinarazteaz gain, horrela xedatzen baita publikoak ez diren artxiboak antolatzeko, hedatzeko eta digitalizatzeko diru-laguntzak banatzeko modua arautzen duen Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2015eko irailaren 30eko Aginduan.

Ondorioz, hauxe

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2015eko irailaren 30eko Aginduaren babesean 2015ko ekitaldian emandako diru-laguntzen zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea. Agindu horren bitartez, publikoak ez diren artxiboak antolatzeko, hedatzeko eta digitalizatzeko diru-laguntzak banatzeko modua arautu zen.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko, irailaren 16a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
JOSÉ ÁNGEL MARÍA MUÑOZ OTAEGI.

2016ko urtarrilaren 4a, astelehena

I. ERANSKINA

ONURADUNA	PROIEKTUA	ZENBATEKOA
Ahoa (Ahozko Historiaren Artxiboa)	Ikus ondarea zainzea eta ahozko iturriak biltzea	3.375,00
Loiolako Santutegia. Jesusen Lagundia S.J. (I. programa)	Lesmes Frias funtsaren (Jesusen Lagundiaren historia) hustuketa (2. fasea). XVIII. eta XIX. mendeak	20.000,00
Loiolako Santutegia. Jesusen Lagundia S.J. (II. programa)	XVII., XVIII. eta XIX. mendeetako dokumentuak hustutzea. Loiolako antzinako kontuak	20.000,00
Loiolako Santutegia. Jesusen Lagundia S.J. (III. programa)	Funts historikoak digitalizatzea. Karlismoko Apalategiren funtsa digitalizatzea (6. fasea)	20.000,00
Eusko Ikaskuntza	Eusko Ikaskuntzaren artxibo dokumentala (1918-1936). Katalogazioa, digitalizazioa eta hedapena	5.574,00
Archivo de la Casa Zavala Fundazioa	Zarauz-Cerain Etxearen artxiboa eta Marqueses del Puertoren (Barrenechea, Bilbo) artxiboa antolatzea eta deskribatzea	20.000,00
Archivo de la Casa Zavala Fundazioa	Datu-baseak handitzea eta iturri dokumentalak prestatzea digitalizatzeko eta ondoren webgunean fheadatzeko	20.000,00
Eusko Ikaskuntzaren Euskomedia Fundazioa	Manuel Irujoren artxiboa. Katalogazioa, digitalizazioa eta hedapena	6.370,00
Eusko Ikasketarako Fundazio Popularra	Tirso de Olazabal jaunaren artxiboa digitalizatzea	20.000,00
Sancho el Sabio Fundazioa	Yrizar artxiboa. Antolaketa katalogazioa eta digitalizazioa (1. fasea)	20.000,00
Jose Unanue Fundazioa	Jose Unanuren artxibo historikoa: Frankismoan zehar langileei egindako elkarrizketen minutuz minutuko transkripzioa	4.711,00
Lenbur Fundazioa	Enpresa funtsak antolatzea eta katalogatzea	4.750,00
Victoria Eugenia Antzokia, S.A.	Berezko artxibo-sistema abian jartzea. Donostiako Jazzaldiaren 51. Jaialdia	5.220,00
GUZTIRA		170.000